

Lituania: Mafalda Tupe-rekin elkar hizketa

Mafalda Tupe Espainierazko Departamentuko kide da Vilniuseko Unibertsitatean eta Landsbergis, Lituaniako Lehendakariaren itzultzaile ofiziala.

GALDERA: Zein da Lituaniara nazio-hizkuntzaren ezagutza maila?

ERANTZUNA: Zaila da galdera honi zehatz-mehatz erantzutea ia inork ez bait du lituaniera nazio-hizkuntzaren ezagutza maila aztertu. Zera baino ezin dezaket esan, 1980ko Entziklopedia lituaniar soviatarreko datuen arabera Lituaniako 3.570.200 biztanleetatik 2,5 milioik jotzen duela lituaniera bere ama hizkuntzatzat.

G: Zein da eskolako hizkuntza? Eskola Errusiarrek ba al daude oraindik? Nor heltzen da horietara?

E: Eskola sekundario lituaniarretan 1991/1992an 499.692 ikasle egon dira ikasten. Horietatik:

- eskola lituaniarretan: 401.828 (% 80,4)
- eskola poloniarretan: 4.467 (% 0,9)
- eskola errusiarretan: 49.779 (% 10)
- eskola mixtoetan: 43.618 (% 8,7)
- a) ikasgela lituaniarrek: 12.491
- b) ikasgela errusiarrek: 22.983
- c) ikasgela poloniarrek: 8.144

Lituanian 1991/1992 ikasturtean eskolen banaketa honakoa izan da:

- 83 eskola errusiar
- 46 eskola poloniar
- 27 eskola lituaniar-errusiar
- 50 eskola errusiar-lituaniar
- 24 eskola lituaniar-errusiar-poloniar

G: Zein adinetan sartzten da bigarren hizkuntza?

E: Lituaniara nazio-hizkuntza eskola errusiar eta poloniarretan hirugarren urtetik aurrera sartzten da (astean 4 klase). Hizkuntzen irakaskuntzak lehentasuna duen eskola bereziren bat bada lituaniera bigarren urtetik aurrera sartzten da. Datu horiek, Lituaniako Irakaskuntza eta Kultura Ministraritzako (Sure Danute Kolesnikova) minoria nazionalen eskoletako sailburuak eman zizkidan.

G: Zein jarrera hartu dute errusofonoek martxan dagoen hizkuntz normalkuntzari begira?

E: Lituaniarari nazio-hizkuntza statusa emateari buruzko legea onartua izan denez, lituanierazko klase kopurua gehitu egin zen eskola poloniar eta errusiarretan; Irakaskuntza eta Kultura Ministraritzaren ondoan lituaniera hizkuntzaren Irakaskuntza Zentrua sortu zen. Zentru honek, lituaniera hitzegiten ez dutenentzako lituanierazko ikastaroen antolakuntza koordinatzen du, irakaskuntza programak prestatzen ditu, eskuliburuak argitaratzen ditu, eta abar. Lituaniara hitzegiten ez dutenek, beren borondatez ikasten dute era ezberdinetan: indibidualki, ikastarotan, telebistaz, kasetak erabiliz, eta abar.

Lituaniararen Irakaskuntza Zentruari buruz "Respublika" aldizkarian 1992ko martxoak 11an argitaratutako artikulu baten itzulpena da hau:

Ba dira hiru urte inguru Vilnius-en funtzionatzen duela lituaniera hitzegiten ez dutenentzako ikastaroak antolatzen dituen eta ikastaro horietarako laguntza metodologikoa eskeintzen duen Lituaniararen Irakaskuntza Zentruak. Zentru horretako zuzendaria den Genovaite Petrouskiene-k esan zigun Parlamentuak nazio-hizkuntzaren normalkuntzari buruzko legea onartu zuenean ez zegoela ikasle faltarik. Vilnius, Klaipeda, Sienliei, Igudine, Svenrionys eta beste hiri batzutan 7.500 pertsonak ikasten zuen ikastaro horietan garai hartan. 1991ko azaroaren amaieran 4.000 baino ez zen geratzen. Aurten oraindik gutxiago. Adibidez, Vilniusen, 660 pertsonak soilik eman zuen izena ikastaro horietan. Iaz 2.000 izan ziren eta aurrekoan 4.000. Zergatik lituaniera hitzegiten ez dutenak ez dira orain, Lituania Estatu libre bat denean, lituanieraz interesatzen? Genovaite Petrouskienek zenbait arrazoi aipatzen du: Gobernuak asko tardatzen du lanpostu bat edo beste betetzeko beharrezkoa den hizkuntzaren ezagutza maila finkatzen; diru-baliabide urria duten enpresek ezin diete ikastaro horiek ordaindu beren langileei; Irakaskuntza eta Kultura Ministraritzak diru laguntza eskatzen dio Gobernuari taldeekin lan egiten duten irakasleei ordaintzeko -gaur egungo prezioen arabera, milioi bat errublo beharko litzateke ikastaro horietako 500 irakasleei ordaintzeko-.

Aldizkari bereko beste informazio bat:

1992ko martxoaren 9an Poloniako Kanpo-Harremanetako Ministraritzak bere kezka adierazi zuen Lituaniako eskoletan debekaturik dagoelako Polonian argitaratutako eskuliburuaren erabilpena. Poloniako Kanpo-Harremanetako Ministraritzaren arabera, Irakaskuntza eta Kultura Ministraritzaren ebazpen hori ez dator bat Varsovian 1992ko otsailaren 21ean izenpeturiko hitzarmenarekin, non, material didaktikoari buruzko arazoak bi herrialdeen artean osaturiko batzorde berezi batek ebatzi beharko dituela aurrikusten den. Lituaniar eta poloniarren arteko tentsioa aregotu dezakeen desinformaziotzat jotzen du Ministraritzak lituaniarrek Poloniako irratia zabaldutako informazio hori. Eskola lituaniarretan erabiltzen dira eskuliburu atzerritarrak Ministraritzaren onespenearekin. Ez da inolako eskulibururik debekatua izan.

G: Zure begikotasunari esker eskuratu ditugu Lituaniar indarrean dauden testu legal ezberdinak, hizkuntzari buruzko legea bereziki. Gehituko al zenuke besteren bat?

E: Lituaniar Errepublikako Kontseilu Gorenaren 1-824 zdun. ebazpena, 1990ko

azaroaren 29koa, "Nazio-hizkuntza statusa gauzatzeko epemugari buruz". Hauetxek dira zatirik azpimarragarrienak:

- Gehiengoak lituaniera hitzegiten ez duen lekuetan -hiri, herri, departamentu-kokaturiko zerbitzu publikoetako langileei eta erakunde, enpresa eta instituzio estataletako zuzendariei nazio-hizkuntzaren ezagutza minimoa baino ez exigitzea 1995eko urtarrila bitartean.

- Nazio-hizkuntzaren eskakizunak ez egozte lanpostuaren arabera biztanlegoarekin kontakturik ez duten edota dokumentazioarekin lanik egin behar ez duten enplegatuei.

G: Zein hizkuntza erabiltzen da Parlamentuan eta Gobernuan?

E: Parlamentuak eta Gobernuak lituaniera baino ez dute erabiltzen. Baita prentsaurrekoetan ere, non, nolabait esateko, kazetari errusiarrek parte hartzen duten. Galderak errusieratik lituaniera itzultzen dira nahiz eta errusiera guztiek ulertzen duten.

G: Zein hizkuntzatan irakasten da Unibertsitatean? Ikasgai ezberdinetarako testu libururik ba al dago? Zer ikasten da oraindik errusieraz? Zenbat liburu argitaratzen da lituanieraz?

E: Unibertsitatean lituanieraz irakasten da baina oraindik badaude 10 ikasletako taldeak fisika, matematika, ekonomia eta zuzenbidean. Ikasturte honetatik aurrera ez da talde errusiar gehiagorik izango. Baina hizkuntza eta literatura errusiarreko ikasleek errusieraz ikasten jarraituko dute. Aurten talde hori 15 ikasletakoa izango da. Etorkizuneko ikasleei zuzenduriko "Universitas Vilnensis" aldizkariko 1992.01.22ko zenbakiak, zera dio:

Azken urteotan popularitatea galdu duen errusieraren zati bati hitzegin nahi genioke. Ez dugu pentsatu behar errusiar filologiako jakitunak ez zaizkiola beharrezkoak izango Lituaniari. Aldatzen den gauza bakarra bere statusa da; eskola sekundarioetan irakasten den hizkuntz atzeritarretako bat izatera pasa da eta komunikazio politiko, ekonomiko eta kulturalerako hizkuntza gisa funtzionatuko du. Aurten hizkuntza hori ikasiko dutenek poloniera aukeratu ahalko dute espezializazio bezala.

G: Zein hizkuntzatan funtzionatzen dute irratiak eta telebistak?

Irrati lituaniarrean egunero eta guztira ordu bat eta 40 minutuko saioak egoten dira errusieraz, ordu eta 10 minutu polonieraz, 10 minutu bielorrusieraz, 10 minutu tartarieraz eta beste 10 minutu ukrainieraz. Gainera Moskutik 2saio entzun daiteke.

Telebistak astelehenetik ostiralera 10 minutuko emankizunak eskaintzen ditu errusieraz eta 10 minutu polonieraz. Larunbata eta igandean 60 minutu errusieraz eta beste horrenbeste polonieraz. Moskuko telebistako bi programa ikus daitezke eta beste bat Varsoviakoa.

Itzultzailea: Lurdes Rada